



# Gorrotoa

**1** Aukeratu hitz egokiak, eta deskribatu zer gertatzen den Emoziotegiko 14-15. orrialdeetako irudian.

lokatza bizikleta plisti-plasta ibili patxada ziprirtindu zikindu itsua  
txerria azkar orbana lanpara elefantea basurdekumea motozikleta

---

---

---

**2** Nola uste duzu sentitzen dela irudi horretako protagonista? Markatu egokiak iruditzen zaizkizun erantzun guztiak.

- |                                       |                                    |                                    |
|---------------------------------------|------------------------------------|------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> minduta      | <input type="checkbox"/> suminduta | <input type="checkbox"/> haserre   |
| <input type="checkbox"/> atsekabetuta | <input type="checkbox"/> lur jota  | <input type="checkbox"/> logale    |
| <input type="checkbox"/> triste       | <input type="checkbox"/> pentsakor | <input type="checkbox"/> harritura |

**3** Begiratu berriz irudiari, eta idatzi zure ustez zer gertatuko den.

---

---

---

---

## 4

Irakurri Emoziotegiko 14. orrialdeko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra)**, dagokionaren arabera.

- Gorrotoak iraupen laburra izaten du beti.
- Gorrotoa sentitzen duzunean, maitatzeari uzten diozu.
- Gorrotoak berekin dakar beste norbaitek kalteren bat jasateko nahia.
- Amorrua eta gorrotoa emozio bera dira.
- Antipatia sentitzen duzun orotan gorrotoa sentitzen duzu.

## 5

Markatu **arbuio** hitza zuzen erabili den esaldia.

- Jokinek amaren loreontzi berria hautsi du, eta amak arbuio egin dio.
  - Bazekiten Eiderrek apurtu zituela lagunen jostailuak, eta arbuioz begiratzen zioten guztiek.
  - Oierrek ez zuen bazkaria probatu ere egin, eta txokolaterik gabe arbuiatu zuen amonak.
- Orain, idatzi gaizki dauden esaldiak, hitz egokiak erabiliz.

errieta

zigortu

## 6

Azpimarratu **gorrotoaren** antzeko esanahia duten bederatzi hitz.

higuina

dibertsioa

etsaitasuna

ohartarazpena

hornikuntza

ezinikusia

herra

gaitzespena

bultzada

aiherra

adorea

gaizkinahia

gaitzondo

atxikimendua

nazka

apatia

# 7

Lotu hitz hauek (aurreko ariketatik hartu dira) dagokien definizioarekin.

herra	Zerbaitekiko neurritz kanpoko nazka.
gaitzondoa	Norbaiten kontrako mania edo gurari txarra.
etsaitasuna	Maitasun falta batek eragiten duen nahigabea.
higuina	Iragandako zerbaitekiko gorroto-sentimendua.

# 8

Irakurri arretaz ondoko egoera. Gero, adierazi nork sentitzen duen **gorrotoa**.

Hondartzan, lagun-talde bat pilotarekin jolasean ari da. Bat-batean, pilotak itzalkin bat jo du, eta zulatu egin da.

- Paule negarrez hasi da atsekabeturik, pilota harena baita.
  - Beñatek sorbaldak jaso ditu, eta jolasa aldatzea proposatu du.
  - Koldok oihu egin dio itzalkinaren jabeari: "Nahiago nuke puskatuko balitzaizu!".
  - Ikerrek beste pilota bat emateko eskatu dio itzalkinaren jabeari.
- Orain, azaldu zer egingo zenukeen zuk egoera horretan.

---



---

# 9

Zertan dira desberdinak maitasun arduratsua eta **gorrotoa**?

---



---

**10** Idatzi **gorrotoa** sentitu duzuneko hiru egoera. Adierazi norenganako gorrotoa sentitu zenuen, eta azaldu zergatik sentitu zenuen gorroto hori.

---



---



---



---



---



---



---



---

● Pertsona horiei zerbait txarra gertatzea nahi izan zenuen? Zer?

---



---



---

● Aurreko egoera horiek kontuan hartuta, adierazi gorrotoak luze iraun zuen.

---



---



---



---

# 11

Egoera bakoitzean, azaldu zer egin daitekeen gorrotoa gainditzeko.

- Nereak jostailu bat hautsi dio Gorkari. Gorka Nerearekin haserretu da, eta jostailu bat hautsiko diola mehatxu egin dio.

---



---

- Enekeri amak ez dio jolastera irteten uzten. Enekok hala esan dio: "Zuk nirekin jolastu nahi duzunean, nik ez dut nahi izango", eta alde egin du.

---



---

- Mikelek estropezu egin du Alaitzen bizkar-zorroarekin, eta Alaitz iraindu du.

---



---

# 12

Asmatu bukaera zoriontsu bat txerritxoaren eta elefantearen istorioarentzat (Emoziotegiko 14-15. orrialdeak).




---



---



---



---



# Gorrotoa

## OHARRAK

---



---



---



---



---



---



---



---



---



---



---



---



---



---



---



---

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: [http://www.palabrasaladas.com/f/emo\\_eus.html](http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html).